

SAGARDOAREN LURRALDEA

el territorio de la sidra

Sagardoaren
lurraldea
El territorio
de la sidra

Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga - Gipuzkoa
Tel: 00 34 943 550 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

PRENTSA DEIALDIA

Gaia:

XXII. Sagardo Berriaren Eguna 2015. 2015eko txotx irekiera ofiziala.

Data: 2015ko urtarrilak 14.

Ordua: 12:00.

Tokia:

Prentsaurrekoa:

Sagardoetxea, Euskal Sagardoaren Museoa
Kale Nagusia, 48
20115 Astigarraga

Txotx irekiera:

Bereziartua Sagardotegia
Iparralde bidea, 16
20115 Astigarraga

Deskribapena:

Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, urtarrilaren 14an XXII. Sagardo Berriaren Eguna 2015 ospatuko da txotx denboraldi berriari hasiera emateko. Aurtengo gonbidatuak, **LOREAK filmeko protagonistak** izango dira. Aurtengo berrikuntza nagusia, **txotx irekierako errituala** izango da.

Egitaraua:

11:30-12:00: Komunikabideei akreditazioak emango zaizkie **Sagardoetxean**.

12:00: Prentsaurrekoa Sagardoetxean. Bertan azalduko dira 2014ko uztaren ezaugarri nagusiak, sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarriak eta sagardoaren munduko gertaera garrantzitsuenak.

12:45: LOREAK filmeko protagonistek **sagarrondo** bat landatuko du Sagardoetxeako sagastian.

13:30: Txotx irekierako errituala: txalapartarien deiarekin batera, sagar dantzak eta sagardogileen soka dantzak protagonista kupelera gerturatuko dute.

13:45: Bereziartua sagardotegian "Gure Sagardo Berria" oihu eginda **lehen kupela irekiko** da eta honekin batera, 2015eko txotx denboraldi berriari hasiera emango zaio. Ondoren, denboraldiko sagardotegiko lehenengo menua dastatuko da.

18:00-20:30: Pintxotx Astigarragako tabernetan.

20:30: Herriko elkarten afaria **Alorrenea sagardotegietan**.

Oharrak:

Asistentzia baieztatzea beharrezkoa da akreditazioak pertsonalizatu ahal izateko. Akreditazioak Sagardoetxea Museoan banatuko dira 11:30etatik 12:30etara bitartean eta Bereziartua sagardotegian 13:00etatik 14:00etara bitartean.

Bestalde, XXII. Sagardo Berriaren Eguneko protagonistei elkarrizketak egiteko bi gune ezarriko dira: bata, Sagardoetxea Museoan sagarrondoa landatu ostean, eta bestea, Bereziartua sagardotegian txotx irekieraren ostean. Elkarrizketen kudeaketa hobetzeko asmoz, **elkarrizketak egiteko tartea ere baieztatzea** eskatzen da.

Kontuan izan aurten 13:30etan emango zaiola hasiera sagardotegian egingo den irekierari **txotx irekierako erritualarekin**. Sagardoaren Lurraldeako antolakuntza taldea bertan izango da argibide gehiago emateko.

Informazio gehiagorako:

Leire Alkorta (Prentsa arduraduna)

Telf: 943 550 575

e-maila: info@sagardoarenlurraldea.com



txotx.info

Sagardoetxea

Sagardobenda

SagardoPedia

